


STM

San Telmo Museoa

Zuloaga plaza 1
20003 Donostia – San Sebastián
Telefonoa: 943 48 15 80
santelmo@donostia.org
www.santelmomuseoa.com

San Telmo Museoa 

ATZOKOA GAUR IBILBIDE OROKORRA

Irakasleentzako koaderno
DBHko lehen zikloko ikasleentzat



SARRERA

Proposatzen den ibilbidea mistoa da; hau da, azalpenak ematen dituen bisitaldi gidatuarekin batera, ikasleek ere, lau taldetan banatuta, fitxetan eskatutako informazioa bilatu behar dute.

Talde bakoitzak gai bana jorratuko du, eta bukaeran, behin denak hezkuntza-tailerrean bilduta, talde bakoitzak besteei emango die egindako lanaren berri. Museoaren ardatzak dira jorratu beharreko gaiak: iraganera begira, etorkizunari heltzeko erronkak azaltzea da asmoa. Izan ere, San Telmo Gizarte Museo bat da.

Hona hemen jorratuko diren gaiak:

1. **GENERO eta GIZA ESKUBIDEEN aldetiko begirada historikoa**
2. **LURRALDE TASUNAREN aldetiko begirada historikoa**
3. **IRAUNKORTASUNAREN aldetiko begirada historikoa**
4. **KULTURARTEKOTASUNAREN aldetiko begirada historikoa**

Jakina, bisitaldi gidatua kontratatu beharrean irakasleak bisitaldia bere kabuz egin nahi badu, hemen agertzen diren bisitaldi gidatuarekiko erreferentziak haren gain geratuko dira. Hartara, hoberena museoa aldeztetik bisitatzea da. Dena den, hark egin nahi lituzkeen azalpenez aparte eta haien lagungarri, koaderno honetako fitxetan erantzunetatik harago doazen azalpenak ere gehitu dira. Azalpen horietako datuak edota gogoetak ikasleei helarazi ala ez, eta, egitekotan, nola, irakaslearen gain geratzen da, bera baita taldea hobekien ezagutzen duena. Halaber, irakaslearen esku geratzen da bisitaren aurretik edo ondoren ikastetxean jorra daitezkeen gaien osagarri gisa erabiltzea edo ez.

Jarduera osoa egiteko, ordu eta erdi kalkulatu da.



Bisitaren hasiera:

Ongietorria, Museoaren aurkezpena eta taldeka jorratu beharreko gaien eta materialen banaketa (kontratutako bisitaldi gidatuen kasuan): talde bakoitzak dagokion lan-fitxa jasoko du; harekin batera uzten zaizkien paper-euskarria eta boligrafoak bisitaren bukaeran itzuli behar dira.

Eliza: Ikus-entzunezkoa (13 min.)

“Aztarnak oroimenean” erakustaretoa, beheko klaustroan:

Historiaurretik XVIII. mendera arteko bidaia.

Gidariak hainbat azalpen emango du, gerora taldeek egin beharreko ariketen zentzua hobeki uler dezaten.

Goiko solairuan barnako bisitaldi arina, fitxa betetzeko ariketa bana betetzeko:

Tamainarengatik eta gaien oparotasunarengatik Museoa bisitaldi bakar batean ikusterik ez dagoela adierazteko, eta gaiak jorratzeko edozein ondasun mota baliagarria dela azaltzeko, ariketa bana goiko klaustroan, euskal artearen aretoan, industrializazioarenean eta kiroletakoan.

Erakustaretoetan ikasleek egin beharreko ariketok gaien araberrako lau azpitaldetan banatzen dira, informazioa bilatzeko eta gogoeta egiteko.

Halaber, gai bakoitzak hiruna ariketa dakartza: bina behean eta bana goian.

Fitxetan agertzen den numerazioa praktikotasunarengatik erabiltzen da: lehena, bigarrena... esateak ez dakar lehentasunik edo ordenarik, taldeen joan-etorriak eta ariketak kontrolatzeko erraztasuna baizik.

Hezkuntza Tailerrean:

Ariketak eginda, talde osoa berriro batu eta denek elkarrekin jorratuko dituzte gaiak tailerrean: talde bakoitzak egindako hiru ariketatik bakarra aurkeztuko du, hain zuzen egindakoen artean interesgarriena iruditu zaiona.

Beheko klaustroan:

“Aztarnak oroimenean” aretoaren aldean, ondareari buruzko sentiberatasuna areagotzeko jarduerak; besteak beste, ukitzea bezain gauza xumea ondarearen iraupenerako uste baino askoz kaltegarriago dela adierazteko ariketak proposatuko zaizkie.

Ibilbide bera egiten duten bi ikastalde egonez gero (batzuetan gehiago ere bai), bisitaren ordena alda daiteke; hala nola, goiko klaustroan hasita. Halaber, ikasgela bat Hezkuntza Tailerrean ez baina beste nonbait bil daiteke; adibidez, beheko klaustroan.

OHARRA:

Irakasleen gida honetan, ariketen erantzunak eta azalpenak beltzago eta etzanean daude.






ATZOKOA GAUR

IBILBIDE OROKORRA

Hona, beheko eta goiko solairuaren planoetan, ariketa bakoitzaren kokalekua:

BEHEKO SOLAIRUA:






ATZOKOA GAUR

IBILBIDE OROKORRA

GOIKO SOLAIRUA:



1. TALDEA:

GENERO ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDETIKO BEGIRADA HISTORIKOA

1.1. ARIKETA



“Aztarnak Oroimenean” aretoan.

- Erdi Aroan, pertsona guztiak **jaiotzez berdinak** ziren legearen aurrean?

Bai, denak berdin jaiotzen ziren legearen aurrean.

Ez, batzuk noble jaiotzen ziren eta pribilegioak zituzten.

- Gaur pertsona guztiak, legearen aurrean behintzat, aske eta berdin jaiotzen gara? Zer uste duzue?

Estamentutan banatutako gizartea zenez, noblezia odolari, jatorri biologikoari zegoen lotua, eta hil arteko estatusa izaten zen, ondorengoei ere uzten zitzaiena. Pribilejiozko egoera ematen zien, askatasun eta eskubide gehiagokoa. Hala izan zen Frantziako Iraultzakeskema hura apurtu arte. Hala ere, emakumeei dagokienez, botoa emateko eskubidea XX. mendean lortu zen, eta Espainian frankismoa bukatu arte hainbat eskubide mugatu zitzairen, hala nola lanekoa edo beren ondasunak kudeatzekoa. Gipuzkoan eta Bizkaian, XV. mendeaz geroztik, kaparetasun unibertsala zela eta, gipuzkoar eta bizkaitar jatorrizko guztiak nobleak ziren eta teorian berdinak; baina, kanpotar jatorrikoak baztertzeaz gain, praktikan oztopo ekonomikoak ere bazeuden, emakumeenaz aparte, ustezko berdintasun juridikoan.



1.2 ARIKETA



“Aztarnak Oroimenean” aretoan.

Erdi Aroko euskal emakumeek oso jantzi berezia eramaten zuten.

XVII. mendean, “bekatuzkoa” zelakoan, galarazi zitzaien.

● Zer-nolako jantzia zen?

Burukoa

Emakume ezkongabeak burusik zihoazen; alargunak, burua estalita, baina “gandorrik” gabe. Halakoak ezkonduak zeramatzen, eta ordura arte gorentasun sozial eta ekonomikoa adierazten zuena (zenbat eta oihal gehiago, aberatsago, Holandako mihisea baitzen) falikotzat hartu eta debekatu egin zuten XVII. mende hasierako sorginkeria-auzien ondotik.



1.3. ARIKETA

Goiko klaustro ondoko Arte Ederretako “Euskal Artearen 100 urte” aretoan.



Koadro batean Donostiako Miserikordia etxeko jangela ikusten da duela ehun urte: mojek zerbitzatuta, eskaleak jaten ari dira.

● Gaur egun munduan goseak oraindik jendea hiltzen duela gauza jakina da; baina... gure munduan ere bai?

Gure inguruan halako jangelak badaudela uste duzue? Zuen herrian bertan?

Zergatik gertatzen da halakorik?

Informazioa bilatzeko ez baina gogoeta kitzikatzeko ariketa: gure eredu sozio-ekonomikoak aurrerapen handiak ekarri ditu; baina erronka batzuek bere horretan dira... edo areagotu dira aspaldi honetan, hala nola pobrezia feminizazioa, etxegabeen hedapena, etorkinen zailtasunak ekonomikoki eta sozialki integratzeko, eta abar.




2. TALDEA:

LURRALDE TASUNAREN ALDETIKO BEGIRADA HISTORIKOA

2.1 ARIKETA



“Aztarnak Oroimenean” aretoan.



- Bilatu modulu elkarreragile hau, eta erantzun:

Erdi Aroan, nola lortzen zuten baserritarrek jauntxoen erasoetatik **babestea**?

■ *Hiribilduetan, harresien babespean*

- Ameriketara alde eginda
- Fraide edo moja sartuta

Hiribildu haien ermandade edo bilkurak, urteen poderioz, iraunkor eta orokorrago egin, eta elkarrekin sortutako instituzioetatik (Batzar Nagusiak, Diputazioak...) sortu dira gaur egungo euskal lurralde historikoak. Hain zuzen

jatorria hiribilduetan dagoelako, Gipuzkoan eta Bizkaian “kaparetasun unibertsala” delakoa zabaldu eta batzarretan ez ziren bereizten Eliza, Noblezia eta Hirugarren Estatua delakoa.

2.2. ARIKETA



“Aztarnak Oroimenean” aretoan.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako handikiek zientzia-elkarte bat sortu zuten XVIII. mendean.

- Bilatu hiru esku dituen marrazkia. Zer agertzen da **idatzita** hiru eskuen gainean?

Pista bat: euskaraz dago, baina ez gaur egun idazten den bezala.

“IRVRAC BAT” (HIRURAK BAT).

Euskalerraren Adiskideen Elkarteak bultzatzeko elkarte bat zen, gaur egun badirauena. Fundatzaileak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako handikiak ziren, lurraldeetako instituzioetan kargu gorenak eskuratzen zituztenak (Diputatu Nagusiak, eta abar). Haiek sortu zuten Bergarako Seminarioa, goi mailako ikaskuntza zentroa.



2.3. ARIKETA



Goiko klaustroan, "Belaunaldi zaratatsua" aldean.

- Bila ezazue euskararen aldeko mugimendua sinbolizatzen duen objektu bat, oraindik orain bi urtean behin Euskal Herriko kaleetan eskuz esku ikus daitekeena.



Korrikako lekukoa, Remigio Mendiburu eskultoreak egindakoa (jatorrizkoa: orain erreprodukzioak erabiltzen dira).

Frankismoaren azken urteetan eta ondoren, euskal kulturak pizkunde bat ezagutu zuen, eta ahalegin bereziak egin ziren euskarak gizartean indarra har zezan: euskara batua arautzea, hezkuntza sisteman txertatu eta zabaltzea, helduen alfabetatzea edo euskalduntzea, ofizialtzea zenbait lurraldetan eta besteetan ofizialtzeko eskatzea...

Edukiaz aparte, halako ariketak adierazi nahi die ikasleei gizarte-museo bat ez dela mugatzen iraganeko objektuak biltzera, eta gauza biziak ere ondareztat har daitezkeela, gizartearen ezaugarri bati buruz informazioa emateko eta beraz gogoeta egiteko balio duten heinean.



3. TALDEA:


IRAUNKORTASUNAREN ALDETIKO BEGIRADA HISTORIKOA

3.1. ARIKETA



“Aztarnak Oroimenean” aretoan.

- Erdi Aroan, aurrerapen tekniko batek burdingintzaren ekoizpena izugarri handitu zuen Euskal Herrian. Zein izan zen aurrerapen hura?
 - Elektrizitatea aplikatzea
 - Lurrun-makinak ezartzea
 - Uraren indarra erabiltzea**



Aurrerapen teknikoa ura baliatzea izan zen. Gipuzkoan eta Bizkaian ehunka zeharrola ezarri ziren, tonaka burdina (bider 6 ikatz; hots, bider 30 egur) mendeetan ekoitzi zutenak.

Burdin meatze onenen agortzeak, egurraren eskasiak eta atzerriko lehen labe garaien lehiak gainbehera jarri zuten euskal burdingintza XVIII.ean. Iraunkortasunaren eta aztarna ekologikoaren kontzeptuak, bada, aspaldikoak dira, horrela izendatzen ez baziren ere.




3.2. ARIKETA



“Aztarnak Oroimenean” aretoan.

- Plastikorik ez zegoenean, jantziatarako zerrenda malguak balearen **zein ataletatik** lortzen ziren? Seinala ezazu marrazkian, hitz egokiaren inguruan biribil bat eginez.
- Plastikozko gairik ez balego, prest zeundekete baleak hiltzeko gaur egun?
- Eta nintendo, wii eta halakoei ere uko egingo zeniekete, ingurumena arriskuan jarriko balute?



Kontsumo arduratsuaeren gaineko ariketa. Petrolioaren ustiakuntza industrialia XIX. mendearen bigarren erdialdean hasi zenean, haren deribatuek baleen demanda murriztu badute ere (erregai gisa, plastikotarako...), oraindik arriskuan daude. Beraz, gaur egun baleen alde egitea erraza da haien beharrik ez dugulako. Baina, bestela?

3.3. ARIKETA

Goiko solairuan, “Industrializazioa, aldaketaren eragilea” erakustaretoan.

- Gipuzkoan, eta batez ere Bizkaian, erromatarren aurreko garaian jada ustiatutako lehengai batean oinarritu zen industrializazioa. Zein zen lehengai hura?

Harrikatza

Burdina

Beruna



Burdina izan zen. Bizkaiko industrializazioa ulertzeko, kontuan izan behar da burdin mearen kalitatea, Ingalaterran garatutako Bessemer labeen sistamarako oso aproposa. Kostaldetik gertu, harrikatz ingelesa inportatu eta ontziolen industria ere garatu zen. Baliabidearen agortzeak lurralde osoko desindustrializazioa eta gainbehera sozioekonomikoa erakarri zuen.



4. TALDEA:

KULTURARTEKOTASUNAREN ALDETIKO BEGIRADA HISTORIKOA



4.1. ARIKETA



“Aztarnak Oroimenean” aretoan.

Hona hemen euskal familia baten zuhaitz genealogikoa. Nobleak zirenez, garrantzi handia ematen zioten arbasoen jatorriari.

- Bete ezazue zuetako baten zuhaitza, baina jatorrizko **herrien** izenak jarrita:



- Hortaz, bizi zareten herrian jaio zarete? Eta zuen guraso biak? Eta zuen lau aitona-amonak?

“Gu” eta “besteak” kontzeptuen arteko mugak oso difuminatuak direla iradokitzeko ariketa: gehiago edo gutxiago, urrutitik edo oso gertutik, denok izaten baitugu etorkin jatorririk. Eta gu geu ere izan gaitzke emigrante, hemengo egoera ekonomiko, sozial edota politikoa okerragotuko balitz.





4.2 ARIKETA



“Aztarnak Oroimenean” aretoan.

- Manuel Larramendik XVIII. mendean idatzitako liburu bat hiru hizkuntzatan dago: zeintzuk?

Euskara / Gaztelania / Latina

Izan ere, hiztegi bat da, hirueleduna da, euskarazko lehena, XVIII. mendekoa: euskarak ere baduela bere historia, eta historikoki ere erdarekin etengabeko harremanetan egon dela ulertarazteko ariketa. Behiala latina zen kulturaren hizkuntza European. Euskal Herrian gaztelania eta frantsesa izan dira eta dira (aldameneko bitrinan Entziklopedia frantsesez dago), eta gaur egun ingelesa nagusitzen ari da nazioarteko hizkuntza gisa.



- Eta Museo honetako informazioa, zenbat hizkuntzatan dago?

Idatzizkoa euskaraz eta gaztelaniaz; horrez gain, aretoetako aurkezpen-izenburuak, audiogidak eta signogidak (entzuteko zailtasunak dituztenentzat), ikus-entzunezkoak eta modulu elkarreragileak, eta bisita gidatuak frantsesez eta ingelesez ere eskaintzen dira.

4.3. ARIKETA



Goiko klaustroan eta ondoko “Tradizioak bizirik dirau” erakustaretoetako batean.

- Bila itzazue euskal kirol hauek eta jatorriaren arabera sailka itzazue:

Hipika / Harri-jasotzea / Aizkolariak / Boxeoa / Futbola / Traineru estropadak / Tenisa / Palanka jaurtiketa

Jatorriz bertakoa	Jatorriz kanpokoa
Harri-jasotzea	Hipika
Aizkolariak	Boxeoa
Traineru estropadak	Futbola
Palanka jaurtiketa	Tenisa



- Seinala ezazue beste euskal kirol bat, kanpotar jatorrikoa izan arren geure-geurea dena eta era berean nazioartean ere oihartzun handia duena:

Euskal pilota, hainbat modalitatetan: esku hutsean, pala, errebotea, zesta punta, erremontea...

Bertako/kanpoko kontzeptuen arteko mugak definitu gabeak eta etengabeko eboluzioan daudela adierazteko eta hartaz gogoeta egiteko ariketa: adibidez, zertan da gaur egun “gureago” palanka futbola baino? Manilako Jai Alai toponimoa, pilota-lekura lotua, euskal toponimoa al da?



ONDAREA KONTSERBATZEKO GARRANTZIAZ SENTIBERATASUNA AREAGOTZEKO ARIKETAK:

Museoen zeregina ondarea biltzea, behar bezala gordetzea eta zabaltzea da; ondarea zaintzea, ordea, denon ardura da.

Beheko klaustroan, "Aztarnak Oroimenean" aretoaren aldean.

- San Telmok ia bostehun urte ditu. Orain guztiz zaharberritua dago. Baina, iraungo badu, kontuz ibili behar da. Horregatik ezin dira gauzak ukitu, ezta harriak ere, gogor gogorrak izan arren. Hona hemen hareharri bat, San Telmoko harriak bezalakoa. **Igurtzi eskuz:**
Zer gertatzen da? **Hondar aleak erauzten zaizkiola.**
- Papera asmatu ez balitz, ez genuke gure historiaz ia ezer ere jakingo. Baina papera oso delikatua da, ukitu gabe ere hondatu egiten da eta.
Konparatu orri bat, ilunpean kontserbatutako aldea eta argitan gordetakoa.
Zein orrialde kontserbatu da hobeto? **Argitu gabea.**
- Zertarako balio dute museoetako gauzek, ezin badira erabili?
Bada... hain zuzen, denboran zehar iraun dezaten! Eta hala ere, lanak! Burdina bera, oso gogorra izanagatik ere, hondatzen da kanpoan utzita.
Ezetz asmatu zein den burdinaren **etsairik okerrenetako bat!**

Begiak: ikusteko, argia behar dutelako.

Hatz-mamiak, haiekin laztantzen dugulako.

Ahotsa, hitz egiten dugunean beti eskapatzen zaigulako tua, tanta mikroskopikoak badira ere.

Izerdia (eta hatzei izerdia darie, etengabe) hezea eta gazia da, eta elementu hauek biek metalak herdoiltzen dituzte.

- Giroa hezeegia edo lehorregia bada, edo hotzegia edo beroegia, landare- eta abere-zuntzeko materialak narriatu egiten dira.
- Baina okerreana aldaketak dira, horrela hondatzen dira gehien egurra, larrua, oihalak (artilea, lihoa, kotoia...), eta abar. Konparatu material berberak: zeintzuk daude hobeto eta zeintzuk okerrago?
Larrua, oihala eta egurra oso heze, oso lehor eta behar bezala: hiruna puska.






ATZOKOA GAUR IBILBIDE OROKORRA

donostia**kultura**.com



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

Erakunde laguntzaileak:

San Telmo Museoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa

Patrono pribatuak:



EL DIARIO VASCO



SEZ

berria^{ento}

GARA

naiz:

